

Hernani Musika Eskola Publikoak Covid-19aren aurrean jarduteko estrategia 2021-2022 ikasturterako

IKASLE ETA GURASOENTZAKO LABURPENA

1. Neurri orokorrak

- a) Pertsonen artean 1,5 metroko gutxieneko distantzia mantenduko da.
- b) Ikasleek Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak agertzen badituzte, ez dute musika eskolara joan behar: etxean geratu eta horren berri eman eskolako irakasle edo zuzendariari. Aldaketa esanguratsurik gertatzen denean ere, jakin arazi.
- c) Maskara nahitaez erabili beharko dute, espazio guztietan eta une oro, langile eta ikasle guztiek, salbuespen hauekin:
 - 6 urte arteko haurrek ez dute derrigor erabili behar, baina ahal denean, adin horretatik beherakoek ere erabiltzea gomendatzen da.
 - Haizezko musika tresna jotzen duten ikasle nahiz irakasleek maskara kendu ahal izango dute tresna ahoan duten bitartean soilik.
- d) Ikasleek nork bere maskara ekarri eta erabili behar dute.
- e) Eskuak maiz eta ongi garbitzea gomendatzen da. Gela guztietan izango da horretarako hidrogela, eta komunetan ura eta xaboia, paperezko zapi eta zakarrontziekin.
- f) Haizezko instrumentoko ikasleek jotzeko garaian maskara kenduto dute, ikasle irakasle arteko distantziak zorrotasunez mantenduz.

2. Eskolako sarrera-irteerak

- a) Ikaslea adin txikikoa bada, pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen lagun, eskola saioaren hasieran edo amaieran eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da.
- b) Ikasle edo langilea ez den inor ezin da ikastetxera sartu. Horretarako aldeztatik hitzordua edo zuzendaritzaren baimena beharko da, eta bulegoko leihatilan artatuko da. Leihatilan gehienez pertsona bat egon liteke aldiko.
- c) Laguntzaileak ezin izango dira ikastetxearen inguruan geratu, are gutxiago taldeak eratuz.
- d) Ikastetxeko sarrerako aterpean ezin da geldirik edo zain egon, ikastetxeko sarrera-irteera da, eta seinaleztatutako bidetik ibili behar da, distantziak mantenduz.
- e) Eskolako sartu-irtenak puntualtasunez egitea gomendatzen da, itzarotealdiak saihesteko

f) Adin txikiko ikasleen familiekiko harremana telefonoz edo posta elektronikoz mantentzea gomendatzen da, ikastetxera bertaratu gabe.

3. Eskola barruko funtzionamendua

- a) Eskolan barrena ibiltzeko, seinaleztatu diren ibilbide eta distantziak errespetatu behar dira beti.
- b) Pasilloetan ezin da egon, ez banaka ez taldean, eta ezin da ezer utzi.
- c) Ikastetxeko komunak bertako langile eta ikasleek soilik erabil ditzakete, bakoitzak dagokiona eta aldiko pertsona bakarrak. Erabili ondoren, aldiro, desinfektatu egin beharko da.
- d) Igogailua behar-beharrezko kasuetan bakarrik erabiliko da.
- e) Ikastetxe barruan ezin da jan.
- f) Geletako zakarrontziak higieneko material eta errefusarako erabiliko dira soilik. Papera, ontzi arinak eta organikoa eskolaren sarrerako edukiontzietan utziko dira.
- g) Ikasleek nork bere gela eta erreferentziazko tokian egon behar dute, ahal den joan-etorri gutxiena eginda. Bulegoetan ezin da sartu.
- h) Ikasturte honetan musika eskolan ez dago ikasketa gelarik eskola orduz kanpo.

4. Eskolak, tresnak eta ikas materiala

- a) Banakako eskolak lehenetsiko dira, eta taldeko eskoletan talde finakoak eratuko. Talde horietako bakoitzean, bertakoa ez den ikaslerik ez da sartuko.
- b) Materialak eta tresnak ez dira partekatuko, aldez aurretik garbitu eta **desinfektatu** gabe.
- c) Ikasle bakoitzak bere musika tresna eta ikasketa materialak erabiltzea gomendatzen da eta, ahal direnak, nork bere etxera eramatea.
- d) Eskolak utzitako musika tresnaren bat eramaten duen ikaslearen ardura izango da, aldiro, garbitu eta desinfektatuta itzultzea.